



# aballarri

EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

## GURE INGURUAK EZAGUTUZ CONOCIENDO NUESTROS ALREDEDORES

Egape Ikastolak badu izaera propioa eta horren baitan baditu ikastetxean bertan sortutako proiektuak. Horien artean "Gure inguruak ezagutzuz" izeneko proiektua. Urnietako herrian txertatutako ikastetxea izanik, herriak eskaintzen dizkigun natur inguruneak eta mendiak ezagutzea eta partaideen elkarbizitza sustatzea ditu helburu. Helburu hauekin batera, jarduera fisikoak ongizatean duen eraginaz ohartzea ere bada proiektu honen xedea.

Ikasturte hasierako lehen asteetan, Lehen Hezkuntzako maila guztietan aurrera eramaten den proiektua da, ikasle eta irakasleen arteko harremanak sendotuz eta ikasturteari ekintza ludikoekin hasiera emanez.

Mailaz maila, Urnietako herriak inguruan dituen natur eremu eta mendiak ezagutzen dituzte, txikienetik helduenetara, Santa Barbaratik (LH 1 eta 2) Adarra mendira (LH6), Azkorte (LH3), Buruntza (LH4) eta Onddi (LH5) tontorrek zapaltzen dituzte gure ikasle eta irakasleek. Urnietak badituelako txoko eta bazter kuttunak eta Egape Ikastolak, Urnietarron ikastola publikoak, bertako izaera gorde eta mantentzeko lanean jardun baitu urte luzeetan.

*Egape Ikastola a lo largo de los años ha desarrollado sus propios proyectos. Entre ellos se encuentra el proyecto "Conociendo nuestros alrededores" que tiene como objetivos conocer los entornos naturales y los montes de Urnieta y fomentar la convivencia positiva. El objetivo de este proyecto es, además, concienciar sobre el beneficio de la actividad física en el bienestar y la salud.*

*Se trata de un proyecto que se lleva a cabo en las primeras semanas de comienzo de curso en todos los niveles de Primaria, reforzando las relaciones entre alumnado y profesorado y dando inicio al curso con acciones lúdicas.*

*Curso a curso, desde los más pequeños a los más mayores, los alumnos y las alumnas conocen los espacios naturales y montes que rodean el pueblo de Urnieta, desde Santa Bárbara (1º y 2º Prim.) al monte Adarra (6º Prim.), pasando por Azkorte (3º Prim.), Buruntza (4º Prim.) y Onddi (5º Prim.). Siendo Egape Ikastola la escuela pública de los y las urnietarras, fomentamos que el alumnado conozca y sienta como propios los bonitos lugares de su entorno.*





## PROIEKTUAK PRAKTIKAN JARRIZ IKASTEN DUGU TEKNOLOGIAN



Ikasleak marrazketako oinarriko ezagutzak lantzen hasten dira, maketak eta gailuak diseinatzeko ezinbestekoa baita. Hasieran esku hutsez marrazten dugu, ondoren tresnekin, bi dimentsioetan, hirutan eta amaieran ordenagailuz. Lanketa borobiltzeko, hiru dimentsioetan marraztutakoa 3D inpresoran gauzatzen dugu.

Bestalde, proiektuetan elektrizitateak pisu handia hartzen du. Zirkuitoak muntatuz, egunero erabiltzen ditugun gailuen funtzionamendua ulertzen hasten gara. Lehen egunetik pizten ditugu lanparak eta ledak, martxan jartzen ditugu motor txikiak eta txirrinak. Ondorengo mailetan sistema automatikoak muntatzen ditugu eta baita sentsoire elektronikoak ere.

Proiektuetan egiturak eraikiz, mekanika landuz, energia iturri berriztagarriak erabiliz, hidraulikaren lehen hastapenak ikasiz... maketak eraikitzen ditugu. Hau guztia gauzatzeko, eskuzko erremintak erabiltzen ditugu, makina elektrikoak, materialak eta piezeroak.

Azken urteetan asko garatzen ari diren eta gure industrian hain garrantzitsua den robotika eta programazioa ere lantzen ditugu kurtsu gutzietan, MicroBit eta Arduino plaka elektronikoak erabiliz.

Teknologia ikasgaiak "Do it yourself" edo maker mugimenduan murgildu nahi duenari edo etxean konponketa txikiak edo brikolajea egin nahi duenari oinarri bat ematen dio. Eta nola ez, honek guztiak, etorkizunean gure gazteak zientziaren eta teknologiaren arloko ibilbide profesionalak aukeratzea du helburu.



## EN LA ESO APRENDEMOS TECNOLOGÍA PONIENDO EN PRÁCTICA PROYECTOS



*El alumnado comienza a trabajar los conocimientos básicos de dibujo imprescindibles para el diseño de maquetas y dispositivos. Primero, dibujan a mano alzada, después con herramientas, en dos dimensiones, en tres y al final con ordenador. Para completar el trabajo se imprime en 3D lo dibujado.*

*Por otro lado, la electricidad cobra mucha importancia en los proyectos que se realizan. Montando circuitos empezamos a entender el funcionamiento de dispositivos que utilizamos diariamente. Desde el primer día encendemos lámparas y leds, ponemos en marcha pequeños motores y timbres. En cursos superiores montamos sistemas automáticos y sensores electrónicos.*

*En la elaboración de los proyectos trabajamos la mecánica, utilizamos fuentes de energía renovables, aprendemos las bases de la hidráulica... para la construcción de maquetas. Y para llevarlo a cabo utilizamos herramientas manuales, máquinas eléctricas, diversos materiales y piecercos.*

*También se trabaja la robótica y la programación tan importantes en nuestra industria, utilizando placas electrónicas MicroBit y Arduino.*

*Así, en el área de tecnología se adquiere una base para quien quiera sumergirse en el movimiento "do it yourself" o hacer pequeños arreglos o bricolaje en casa y, como no podía ser de otra manera, para que nuestros y nuestras jóvenes puedan elegir, en el futuro, itinerarios profesionales en el ámbito de la ciencia y la tecnología.*



## MUGIMENDU AUTONOMOA HAUR HEZKUNTZAN

Egape Ikastolan azken urteotan ematen ari den eraldaketa metodologikoak maila guztietan eragina badu ere, Haur Hezkuntzan ezarrita dagoen Mugimendu Autonomia aipagarrienetako bat izan da.

Metodologia honek konpetentzien garapena ahalbidetzen du eta aniztasuna eta erritmo desberdinak errespetatzen ditu. Ikasleari espazioa aukeratzeko askatasuna ematen dio honen aprobetxamendu hobea eginez eta harremanak sendotzeko aukerak zabaltzen dizkio, adin bereko ikasle guztiekin elkarrekintzan egoteko aukera ematen baitio. Bide horretan laguntzea izango da irakaslearen zeregina. Hortaz, ikaslea erdigunean jarriko da eta bere behar, interes, gogo... aintzat hartuko dira. Ikaslearen ongizatea, segurtasun fisikoa eta emozionala bermatuko dira. Ikaslea bere aprendizai propioa eraikitzen joango da.

Jolasa izango da oinarria, jolasa baita ikasleak mundua ulertzeko erabiltzen duena; esperimintatuz, ingurua esploratuz eta pertsonen arteko elkarrekintzak bultzatuz. Hau dela eta, mugimendu autonomoa ahalbidetzeko maila bakoitzeko gela bakoitzean hainbat gune prestatuta ditugu ikasleek konpetentziak garatzen joateko eta helburuak lortzeko asmoz: ametsen mundua, sinbolikoaren gunea, artearen gunea, eraikuntzaren gunea, matematika eta zientziaren gunea eta mundu txikiaren gunea. Gune horien bidez esperimintazioa eta manipulazioa indartzen dira. Ikasleek beraien interesen arabera, aukeratu dute zer egin, nola eta norekin... Bera izango da bere aprendizai prozesuaren jabe.

Begirada aldaketak, ikaslearen zaintzan eta ikaslearen behar eta interesei bidea egiten die. Jarrai dezagun lanean!



## MOVIMIENTO AUTÓNOMO EN EDUCACIÓN INFANTIL

*Aunque la transformación metodológica que se está dando en los últimos años en Egape Ikastola afecta a todos los niveles, el Movimiento Autónomo implantado en Educación Infantil ha sido uno de los más destacados.*

*Esta metodología permite el desarrollo de competencias y respeta la diversidad y los diferentes ritmos. Da libertad al alumnado para elegir el espacio con un mejor aprovechamiento del mismo y le abre las posibilidades de fortalecer las relaciones, permitiéndole interactuar con todos los alumnos y alumnas de su misma edad. El papel del profesorado será el de ayudar en este camino. Por lo tanto, el alumnado se pondrá en el centro y se tendrán en cuenta sus necesidades, intereses, ganas... Se garantizará el bienestar, la seguridad física y emocional del alumno o alumna que irá construyendo su propio aprendizaje.*

*El juego será la base, ya que es el juego lo que utiliza para entender el mundo, experimentando, explorando el entorno y fomentando las interacciones entre las personas. Por ello, para posibilitar el movimiento autónomo en cada aula de cada nivel, tenemos preparados diferentes espacios para que el alumnado vaya desarrollando sus competencias y con el fin de alcanzar sus objetivos: el mundo de los sueños, el espacio simbólico, el centro del arte, el espacio de la construcción, el espacio de las matemáticas y la ciencia y el espacio del pequeño mundo. A través de estos espacios se potencia la experimentación y la manipulación. En función de sus intereses, el alumnado elegirá qué hacer, cómo y con quién... Él será el dueño de su proceso de aprendizaje.*

*El cambio de mirada, en el cuidado del alumnado, abre paso a sus necesidades e intereses. ¡Sigamos trabajando!*



*Erzagutu gaitzazu!*  
*¡Ven a conocernos!*

# EGAPE IKASTOLA

urnietarron  
eskola publikoa



ESKURATU  
INFORMAZIOA  
+INFO



943009275 HLH / EIP  
943899425 DBH / ESO  
[www.egape.eus](http://www.egape.eus)

